

# Bertsolaritza, pentsamendu heterogeneoaren hedabide

IZASKUN ELLAKURIAGA

Aurten ere, hirugarren urtez jarraian, bertsolaritzari buruz zerbait gehiago jakiteko aukera izan da Udako Euskal Unibertsitatean. Aurtengo ikastaroak "Bertsamintza 2" izan du ardatz. Aurreko "Bertsolari" aldizkaria osoki gai horri buruzkoa izan zenez, ez naiz ni hemen horri buruz arituko. Ordea, Fito Rodriguezek ikastaroan azalduko papereratuko dut hurrengo lerroetan. "Bertsolaritza pentsamendu heterogeneoaren hedabide Euskal Herrian" izenburuak nahasmena sor badezake ere, Fito Rodriguezekin izandako solasalditxoak azalduko digu bere tesiaren mamia.

**Lehenbizi, eta izenburutik hasita, zer ulertu behar dugu pentsamendu heterogeneoz?**

Pentsamendu homogeneoa zer den azaltzen hasiko nahiz lehenik. Normalean pentsamendu homogeneoa ahozko kultura batekin lotuta dagoen pentsamenduari deitu izan zaio; bere ingurugiroan erabat txertatua, ezarria, atxekia eta itsatsia dagoen pentsamenduari. Beraz, ingurugiroarekin batera dabilen pentsamendu mota da. Eta hortik kanpo ez du funtzionatzerik. Egitura prestatuak dauzka eta oso egokitua dago bere inguruari. Beti jakinak diren ardatz batzuen arabera jokatzeko da pentsamendu homogeneoaren gakoak.

Pentsamendu heterogeneoa, aldiz, besteren buruan jarri



Fito Rodriguez Bornaetxea.

ahal izatea da. Beste hitz batez esanda, alteritate, beste baten buruan jartzeko gaitasuna izatea.

**Pentsamendu homogeneotik heterogeneorako pausua nola ematen da?**

Pentsamolde sistema alfabetazearekin ba-

tera aldatu egiten da. Irakurtzen eta idazten jakiteaz gain, datuak jaso, antolatu, berreskuratu, ... pentsatzeko

mekanismo oso bat norbereganatzen da. Europar XVIII mendean aldaketa hau emana zegoen kalbiniten artean. Katolikoaren artean XIX. mendean arte itxaron beharko da.

**Guzti honek zer zerikusirik dauka bertsolaritzarekin?**

Bertsolaritza beti ahozko kulturaren eskemaren arabera planteatu izan da. Eta ildo horretatik pentsamendu homogeneo batean murgildua izatea leporatu zaio, hain zuzen nekazal pentsamenduari legokiokeen sisteman.

**Euskal Herrian aldaketa beranduago gertatzen da?**

Euskal Herrian XX mende hasieran bazegoen alfabetatze nahia eta bertsolaritzarekiko nabaritzen zen halako distantzia bat eta ka-

su batzuetan mespretxua ere bai. 1930. urtean, aldiz, Bergaran egin zen Eusko Ikaskuntzako kongresuan Manuel Lekuonak bi bertsolari eraman zituen eta bertsolaritzaren historian erreferentzia izan den giltzarria planteatu zuen: bertsolariengan aurki dezakegun pentsamendua ez dela logika oratianarena, beraz ez datorrela bat idazkerak dakarren pentsamolde aldaketarekin. Beste logika bat dago, pentsamendu erritmikoa da. Esan daiteke bertsolariarekiko mespretxu hori desagertuz joan den arren, izkutuan bada ere, aurreko planteamenduaren aztarnak beti iraun dutela, alegia, bertsolaria nekazal kulturarekin lotzea eta pentsamendu moldatu eta homogeneo bat itsatsia izaterena.

Automespretxu ho-

ri bertsolari garrantzitsuengan ere ikus daiteke. Adibidez, Inaki Eizmendi "Basarrik" badu Gabriel Arestirekin debate bat, non paperak aldatu egiten dituzten. "Basarrik" bertsolaritzak ez duela ezer herririk ematen, oso mugatua a eta nekazal giroari itsatsia dagoela zioen. Gabriel Arestik, berriz, bertsolaritzak poesiak iezen bezala bezala gizaritari kritika egiteko gaitasuna zuela, esaten zuen.

**Pentsamendu heterogeneoaren lotu daitekeen literatur ekoizpenik ba al dago?**

Jorge Luis Borgesek ozenki irakurri eta norberak irakurtzeko artean zer diferentzia dagoen aztertzen zuen. Bien arteko ibilbidea prozesu kultural bat da. Prozedura hori Europan pikareska liburuen bidez gizarteratu zen. Espainian, esaterako,

"libros de cordel" delakoak ditugu. Hain zuzen, buhonerok, mertzerok, bohemiok herriz herri istorio pikareskoak biltzen zituzten liburuak saltzen ibiltzen ziren. Liburu horien ezaugarri nagusia zera da, ozenki irakurtzeko balio zutela alegia. Eta horien bidez alde batetik alfabetatzea eta bestetik alteritatea edo besterengatzea lantzen zela.

**Zer harreman izan dezake "Libros de cordel" delakoek bertsolaritzarekin?**

"Libros de cordel" delakoetan deskribatzen izaten da nagusi. Normala ez den gizarte bat deskribatzen da, hain zuzen behemioak, ijitoak, pikaroak... osatzen duten gizartearen berri ematen da. Honekin batera hiztegi bat dator, beren artean erabiltzen duten argot edo hiztegi eze-


zagun bat. Horretaz gainera, dena sasi-antzerki baten antzera idatzia dago, ozenki irakurria izan dadin eta, azkenik, egoera barregarriak kontatzen dira, askotan parodia oinarri dutenak. Bertsolaritzan ere nabari dira ezaugarriak: bertsolaritzan mailegu asko erabiliko da, pertsonaia marjinalak balaituko dira, parodia egingo da, sasi-antzerki gisa egituratuko da, sasi-hiztegia sortuko da, besteen gizartearen berri emango da...

**Bertsolaritza pentsamendu heterogeneoaren hedabide bezala hartzeko historian une konkretu batean kokatu behar al dugu?**

Argi dago momentu jakin batetik aurrera nagusitu dela guztia, hain zuzen ere, 1935. urteko urtarilaren 20an Donostiako Poxpolin antzokian

lehen bertsolari txapelketa egin zenetik aurrera. Bertan ikus daiteke, ofizioa emanda bertsolariak besterengantzen hasten direla, gaur egungo bertsolaritzan edozein saiotan gertatzen den bezalaxe, ofizioa emanda aritzen den bakoitzean bertsolaria besterengantzen ari da. Baina aita Donostiak bildutako bertsolaritza edo bertsolaritza zaharrena ere gisa honetako bertsolaritza aurki daitezke. Lehen aipatutako ezaugarriekin, pikaroak, deskriptikoak, pertsonaia bat baino gehiago agertuz bakoitzak bere diskurtsoa dialektika ezberdinez defenditzen, sasi-antzerkian gertatzen den bezala. Hori bertsolari zaharrena ere gertatzen da, esate baterako, Txirritak ijitoei eskaintzen dizkien bertsolaritza.

## AULKI, MAHAI, SOINUA eta ARGIA EKIPOEN alokatze serbitzua, montaia eta garraio



☎ 943 47-34-88

DONOSTIA - BERRIZ

## serigrafia - edalontziak - kuberterriak